EpaiMahaikidEen hAinbat iRitzi

Epaimahai Orokorreko kideen hainbat iruzkin bildu dugu oraingoan ere, irakurri dituzten obren gaineko iritzia azaltzeko. Epaimahaikidearen izen-abizenik ez dugu zehaztu, ez baikenuke inor iritzia ematera beldurtu nahi. Egin zaitez zu ere epaimahaikide eta bidal iezazkiguzu zure iruzkinak!

2005eko LibuRak

Mutuaren hitzak
Hasier Etxeberria

Istorioak badu bere hari interesgarria, bukaera arte tentsioari eusten diona, baina bukaeran indarra galtzen ote duen iruditu zait. Hari hori aitzakiatzat hartuta, idazleak zenbait gogoeta egin du (narratzaileak protagonistari egiten dizkion kontu eske moduan azalduak). Estilo hausnartzaile hori gogoko dut nik, baina astunegi, harroegi egin zait azkenerako. Hizkuntza maila gozoan idatzia eta Baztango txokoak ere edertasunez eta maitasunez deskribatuak direla iruditu zait.
(Andoain)

Mendaroko txokolatea
Iñaki Irasizabal

Oso erraz irakurtzeko liburua da. Hilketa bat da istoriaren ardatza, eta amaierara arte irauten du suspentseak. Hasieran nahasi samarra dirudien arren, aurrera egin ahala, pixkanaka argitzen doa guztia.
(Amasa-Villabona)

Riomundo
(Jon Maia)

Txurroak bezala saldu zen Durangoko Azokan. Asko espero nuen. Gehiegi. Pasarte ederrak ditu, baina osotasunean hartuta, ez da hainbesterako. Denboran saltoa dago hasieran, eta kosta zitzaidan idazlea nondik nora zebilen konturatzea: nor zen aitona, nor osaba...; gero, gustura irakurri nuen. Lehenengoa izateko, lan txukuna.
(Oñati)

Hauts bihurtu zineten
(Juan Kruz Igerabide)

Haur eta gazte literaturan ale ederrak utzi dizkigu Igerabidek, eta banuen gogoa nobelarako jauzia ezagutzeko. Urteko sorpresa zela entzun nuen, eta bai, ez dago gaizki. Gustatu zait istorioa nola dagoen harilkatuta, pertsonaien bi aurpegiak nola erakusten dituen, eta hain gai arantzatsua lantzeko modua, gehiegizko sentimentalismoan erori gabe. Nire ustez, pertsonaia nagusiaren –narratzailearen- burutazio filosofiko-existentzialista batzuk daude soberan: batez ere irakurketa geldotzen dutelako. Bestela, ederki.
(Oñati)

Norberaren memoria historikoa birpasatzeko aukera egokia eskaintzen duen liburua.
(Andoain)

Agur Labartzari
Txillardegi

Eleberri hau "bizia eta ausarta" zela irakurri nuelako aukeratu nuen. Bizia ez zait iruditu, ausarta bai. Euskal preso batek kartzelatik atera eta errealitatearekin jasotzen duen danbatekoa azaltzen duelako, maisuki esperientzia handiko idazle honek. Ez dut uste gazte bat hain ausarta izango litzatekeenik. Batua eta bizkaieraren erabilera erraztasunez egina. Barne mundua ere ondo adierazia. Bukaera iradoki besterik egiten ez badu ere, niri etsipenez betea egin zait. Etorkizunaren ateari ez dio zirrikitu handirik uzten.
(Andoain)

Lekuak
Bernardo Atxaga

Bere ibilbidearen aro luze bati amaiera emate aldera argitaratu omen du Atxagak liburu hau. Hona bildu ditu urte guztiotan zehar landu dituen idatzi "ideologikoak"-edo (gehienak aurretik argitaratuak). Horiek irakurtzeak emango bide dio irakurleari, idazlearen lan literarioa zurkaiztu duen pentsaeraren aztarna. Eta hala da zinez. Liburuaren orrialdeetan barneratuko den irakurleak zertzelada eta anekdota mordo bat aurkituko du. Euskara bizigai duenak gustura hartuko dituen anekdotak gainera. Jakingarria.
(Donostia)

Sua nahi, mr. Churchill?
Koldo Izagirre

Joan deneko aspaldian idatzi den libururik bikainena. Mundu bat berreraiki du oroitzapenetan oinarriturik Koldo Izagirrek. Hizkuntza, gure autoreetan inork ez bezala landu, behartu eta jokatu du. Ipuinez ipuin, esaldiz esaldi, arte-lan bete-betea. Irakurle nahiz idazleak irakurtzeko eta nola idatzi ikasteko liburu ikaragarri distiragarria. Beldurgarri ona. *Obabakoak* ezkero ez da horrelakorik idatzi gurean, eta *Obabakoak* bera ere hausten du lan honek.
(Gasteiz)

Note Book
Pako Aristi

Trilogia osatu du Aristik lan sailkaezin honekin, eta baita aurreko biak gainditu ere, nire ustez. Bizitzeko eskuliburua dela esan daiteke. Ausarta, estalkirik gabea, nortasun handiko idazle baten burutazioak eta pentsamoldea erakusten ditu, idazkera fresko baina landuan. Fikzioa besteetan baino alde baterago utzi du, eta ez da kritika zorrotzik falta. Askatasunaren aldeko aldarria da, eta itxurakeriaren kontrakoa. Asko gozatu dut liburua irakurtzen, egia esan. Irakurleari barru-barruraino heltzen zaio, eta hori da, azken finean, liburuen helburu behinena, ala ez?
(Oñati)

Gaur ere ez du hiltzeko eguraldirik egingo
Iñaki Segurola

Dioenaren interesgarritasunean sartu gabe (ez naiz esaten ari interesgarri ez denik), darabilen euskara harrigarri bizia eta aberatsa egin zitzaidan. 10 puxtarri!
(Orio)

Nomadak kantari doaz
Joxean Sagastizabal

Ezin dut balorapenik egin, ezin izan dudalako gozatu. Kuriositatez aztertu egin dut baina, izenen metatzean galdu egin naiz. Sentitzen dut.
(Erratzu)